


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2003ko ekainean

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko ekaina, 2002ko ekainarekin alderatuta) %3,3koa izan da.

2003ko ekainean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta ekainerako urte arteko tasa %3,3ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera. Urteko lehen sei hilabeteetako tasa %3,0 igo da iazko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza ekaineko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldiari (2003ko ekaina, 2002ko ekainarekin alderatuta), lan-eskuaren kostua %5,8 igo da eta lehengaien kostua, berriz, %1,5.

2003ko ekainean guztizko kostuak izandako %0,1eko igoeran eragin bera izan dute azpisektore nagusiek, Eraikinak azpisektoreko kostuak eta Obra Zibilekoak %0,1 igo baitira. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran ere, biak igo dira antzera: Eraikineko kostuak %3,3 igo dira eta Obra Zibilekoak %3,4.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko ekainean, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: karea, igeltsua eta eskaiola (%5,6), petroliotik eratorritakoak (%2,7) eta harri landua (%1,8) lehengaiak. Bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitiera izan dute honakoak: asfalto-produktuak (%-4,2), energia elektrikoa (%-2,0) eta kristala (%-1,6) lehengaiak, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003KO EKAINA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,9	0,1	3,3	3,0	
ERAIKINAK	123,4	0,1	3,3	3,0	
OBRA ZIBILA	121,8	0,1	3,4	2,8	
LEHENGAIEN KOSTUA	115,0	0,1	1,5	1,0	
ERAIKINAK	115,6	0,1	1,5	1,1	
OBRA ZIBILA	113,3	0,2	1,7	0,7	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxe+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es